

# Ideologikeriak eta norkeriak

Gurasoen eta umeen belaunaldi biak oso diferentek direla, eta elkarri begiz-begi jarririk daudela, esaten nuen. Noizpaiteko diferentziak, beren arteko kontrazio bihurtu direla. Eta kontrazio hauen erdian, hasarreturik, elkarren kontra burrukan hasiak ditugula, jadanik.

Burruka hau, hazaldien arteko burruka normal bat baino gehiago da. Bai bere funtsagatik eta bai bere moduagatik. Burruka honetan politikak dadukan inportantzia ikusteko (agirik nahiz izkutuko politikak), ez dago teoria konplikatuak ikasten ibili beharrik.

Baina ez politika programatu batek —Euskal Herrian oraingoz inork ez daki, ez zahir eta ez gaztek, gerorako politika garbi samar nola programatu litekeen— ezpada bai, sentiera eta jite sozial eta politiko jeneralek. Belaunaldi biotan, batean eguzki denean, bestean beti euri da, eta aldrebes. Honela gabilza 1960 aldera hasi eta gaur arte.

Azkenean, 60garren urteetako haiek mentalidade diferenteen diferentziak zirela, esango nuke. Eta gaurkoak ere, gehien-gehienbat, mentalidade diferenteen kontrazioak direla. «H» kontuak eta beste, ez dira diferentzia sakonago horren anekdotak besterik. Axala.

## IDEOLOGIKERIA

Problema latzak daude. Eta, halare, problemak berak ez baina, haien ingurune eta baxter guztiak arakatzeko, jorratzeko eta harrotzeko, diskuitzeko, xehakatzeko eta, azkenean, problemai berari baino inportantzia gehiago zokoei eta baxterrei emateko, joera izugarria dago.

Hormak hautsi eta etxea erortzar dago, eta gu, gure diskuido guzkiekin, teiatua konpontzera jotzen gara.

Izan ere, gehienetan, problemaren bertan gaitasunik eta trebetasunik ez dugu, diletante hutsak gara, ez jakinak, eta ez dadukagu, problema berari heldu ordez, haren inguru-minguruarekin enplegatu beste erremedioirik. Situazio honetan, gauza-eguzumen eta kompetentzia falta, erraz-errazienik, gauza guzietan buruz irakuspenean zurruntza irakusten duen zerarekin disimulatu edo «erremediatzen» da: ideologia-rekin. Zenbait eta gai batetan adituago eta jakintunago izan norbait, hainbat gutiago baliatzen da ideologiari. Hainbat gutiago bere zientziak. Guzik konkret mintzatu ohi da, eta ez du lekuri ideologien-tzat. Baina berdin aldrebes: gauzen ezagumen eta entendimenduen gutiago, eta are jeneralkiago mintzatu behar, hau da, are ideologia gehiago erabiltzen da. Hau da, are «jakitute unibertsal!» (bater ez konkretu) gehiago. Eta are esaldi eta ateraldi borobil, salomoniko, gehiago.

La denok diletante hutsak garen herri batetan, ez da harritzekoa, «zientzia unibertsalak» (ideologiak) hainbeste indar edukitzea.

Zer besterik itxarrenez, literatura-ko problemak konpontzen, zientzia literarioari azalezik ere ikusi gabekoak badabilitza. Pedagogiako problemetarako egiazko pedagogorik ez badugu. Politika gaitz adoresuek badaramate. «Eruditos a la violeta» batzuk besterik ez bagara, filosofian sartu garenok, etab. Gure kultur sorotan «ume-gorriak» besterik ez badago. Gaizki dagoena, ez da, horiek hori dena egitea. Ahal dute-na egiten dute. Gaizki dagoena, horien ondoren eta aurrean zientziak hornitutakorik ez egotea da. Gida eta orientia litzakeenik ez egotea. Eta besteok, gure lanetarako prestamenik gabekook, lan probisionalean bakarrik ari garela, erraztegi ahaztea.

Lehenago esandako belaunaldi arteko elkarriketa eta komunikazio faltaz gainera, hori dena. Hortan gara: «gazteak ez jakinez, eta zaharrak ezinez, doaz egitekoak de-seginez».

Badago beste zerba itraindik, problemetan sakontzen (egin genegazekin apurra ere) uzten ez duena: problema denak subjektizatzea.

## PROBLEMAK SUJETIBIZATZETAKO JOERA

Gazteak joera gehiago dute ideologikeriara, zaharrek baino. Problema itxuragabeki subjektizatze-ko joera, aldiz, zaharrengan ge-

hiago sumatzen dela, uste dut, gazteengana baino.

AGUR edo GOIZ ARGI irakurri, esaterako, hartzen da inpresioa, gure katramila guziak arazo personalen kontu direla, marrokeria, zirauneria, satorkeria eta beste hamaika keria direla gaitz guzien iturburuak. Maila hortan mugitzen dira behintzat, jenera-lean, haien azterketa. Baina aski da AGUR eta GOIZ ARGI horietzek irakurtzea, eta ANAITA SUNA, ZERUKO ARGIA edo HERRIA-rekin konparatzea, edo euskal gazteria zerbaitez ezagutzea, hain mentalidade diferenteen artean konfliktuak nahitaezkoak direla, pentsatzeko.

Haatik ere, problemak subjektizatzea ez da zaharren edo eskuindarren pribilegio. Itxuraz, itxura objektiboagoa agiri dute, baina «ezkeriar» batzuen esplikazioek ere askotan problemak personalizatze-ara eta subjektizatze-ara jotzen dute funtsean. Modan dagoen zenbait ideologiak berak ere horixe errazten bait du. Alegia, hitzetik hortzera esango dizute, problemak objektiboki aztertu behar direla, ez dela subjektibatu behar, etabar. Baina gero esplikazio guziak «burgeskerian» akabatzen dira. Ikus ezazu HERRI GAZTEDE-ko zenbait azterketa. Burgeskeria, berri, modu askotara aipa daiteke. Baina ia beti erabiltzen dizute esanahi subjektibatuarekin ezetik, esanahi guziz personalarekin eta sikologiatuarekin ere. Dudarik gabe kontzientziari, klasetasunari buruz-buruz, beregintasunari ezagutzen ez zaiolako. Burgesok beti erreazio-narioak dira, beti autoritarioak, eta beti mamutzar gaiztoak. Egia da, hitz horrek Euskal Herrian hartu duen usadioarekin, ez dela posible burges bat persona dezentea izatea. Izan ere, sikologismorik sinplena izkutatzen duen sasi-konzeptu hutsetan bukatu du hitz horrek, historiarekin harremanik gabe. Seinalerik nabarmena, hitz hori irain edo insulto bezala erabiltzea dugu: «hi burges bat haiz», «hajakoa burges tzar hutsa duk». Edo-ta, historiari burgesiarik ezagutzen ez zuten garaletan ere, burgesak barra-barra aurkitzen dizkituzte: bistan dago esanahiaren aldakuntza.

Problemen ume bereko ideologi-zapena eta subjektibazioa, ume berrean ideologismo eta subjektibismo nahiko gordinak erakutsiz, ez da «ezkertiarrena» bakarrik. «Ezker-tiar» horiek teoriaren mailan inork baino nabarmenago egingo dizute nahasketara hori. Baina egunoroko praktikan, kasurik nabarmena, ez-pairik gabe, «txartel» banakuntza dugu. E. Osak zuten salatu du, «batzuek oso gogoko lana dutela, jendea familia politikoaetan klasifikatzea». Honelako sorpresak egunoro hartzen ditugu: ZERUKO ARGIA «aldizkari kristau-demokrata» dela (Haranburu-Altuna), orainxe enteratu naiz. ETOR «jesuita» zela (Zelaieta, LUR, E. Aierbe). Ikastolak «marxistak» direla (Arenaza), etc. Klasifikazio hauek, letra inprimatuz baino gehiago, esamesen bidez zabaltzen dira, eta iraunkortasun haina alda-kortasun bizi eduki ohi dute. (Ez

dago esan beharrik, klasifikazio denak ez direla besterik gabe okerrak).

Hau ere, jeneralean, problema bera alde batetara utzi, eta haren ingurumarekin enplegatzeko modu bat izaten da. Batez ere, klasifikazio hauek susmo sinple eta oinarri-rik gabekoak obehiduz egiten direnean, «ozki hotsak esaten dutenetik» (E. Osa) eta gehienetan halaxe egin ohi dira.


Honelako klasifikazioak ez dira beti «txartelaren» moduan egiten: judizio alderdikorregekin ere gauza bera egiten da, funtsean. Uste dut, ni neuz ere behin baino gehiagotan erori naizela huts hor-tan. Baina erori ez naizen kasu bat hemen aipatzen, barkatuko dit moski irakurriak. Ibon Sarasolaren Euskal Literaturaren Historia-n esaten den gurearekin konforme ez naegena, franko garbi erakutsita uago. Baina Arzakaga-tar Pelik ez daduka, erakutsi dudana baino gehiago zergatik ikusirik, GOIZ ARGI-n. Eta Euskaltzaindiaren komi-sio batek liburur hori saritu badu, bidagabeko iruditzen zait, saritza-pen horren kontra nire izena ateratzea.

Beraz, problemak personalizatze-ko eta sikologizatze-ko joera gogorra dago, horrela problemak bestelakotuz eta faltsetuz. Hau ez da harritagarria: hain zuzen gure ego-er sozialan inguratzen gaituzten kondizio sikologikoengatik berengatik. Persegijio giroak, klandestinif-kaioak eta klandestinitismoak, in-formazio agirik ezak, lanaren ghe-negiak eta segurantzariak ezak, di-tugun medioen eskasiak bezalaxe, horixe errazten bait digute. Gai-nera, gauzaren beraren edo proble-maren beraren azterketa sakona-goak zailak dira, sustraiki argitu nahi izanez gero, sustraioak ia beti lurpean izkutatzen dira-ta: eta euskal «lurpe soziologiko» kompli-kaio bezain misterio-tsua eta ko-rapilatu da.

## BERRIZ ERE AMORRAZIOA

Beraz, problema asko eta haun-diak daduzkagu, problema zailak daduzkagu, eta ez dugu gauza haundirik egiten, problemaotan ag-iririk egiteko. Alderantz, lan as-ko egiten dugu, hultasun gehiago sortzeko: arazoak neurri gabeki ideologizatuz eta subjektibatu. Pro-blemaren inguruak beti problema bera baino inportantago bihurtu. Problema hainbeste ideologiza-tzearen edo hain itxuragabeki su-jektibizatzearen kausa inportante bat, berri ere, amorrazioa da. Euskal kulturaren langileak, zaha-rrak nahiz berriak, amorrazioz be-teta agiri dira. Arrazoi diferen-teak edukiko dituzte, noski: elka-riaren amorrazioz bait daude. Baina amorratuta denak daude, ikus dai-tekenez.

Kintanaren Ukronia ez zegoen amorraziorik gabe idatzita, eta ez dago hura gabinetean, amorrazio-rik gabe, pentsatutako gauza be-zala hartzetik. (Kintanaren «ideo-logiaren» espilu garbi antzean!). Eta sortu zituen erreazioak ere ez ziren amorraziorik gabekoak izan. Euskal Literatura 72-ko Haranbu-



ru-Altunaren Hitzaurrea ez zait amorraziorik gabe idatzitako iru-ditzen. Eta Mitxelenaen erreazioa ere ez zen amorraziorik gabekoa. Arenazak dispartzen dituen ar-ra-zoideak ez dira amorraziorik gabekoa, etab. Adibide moduan ba-karrak aipatzen ditut guziki.

Ez nos ni amorrazio hauek zu-zenestera edo gaitzestera. Konsta-tatzea bakarrik, oraingoz. Dudar-rik gabe, bakoitzak bereari onerik-tziko dio. Baina beste honek ere dudu haundirik gabekoa iruditzen zait: Ukronia inpiratuz zuen am-orraziorako arrazoirik falta ez bada (ta ez da falta!), Ukroniak berak

Joxe AZURMENDI

# “ZAZPIRIBAI” ENDAIAN

Apirilaren 17an, gaueko 9etan, Endaia-ko «Varietés» zinema le-kuan, «Zazpiribai» deitzen den espektakulua agertua izango da. Aurretikako aipamenetan adierazi zen bezala, espektakulu hori kantuz, dantzaz eta poesiz osatua dago. Bertan parte hartzen du-nak, Bidasoaz bi aldetako kantari eta soinuari ezagunak dira. Horrela, Manex Pagola, Peio Ospital, Pantxo Carrere, Iñaki Ur-tizberea, Patxika Erramuspe, Ugutz Robles Arangiz, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Loli Ansa, «Argia» dantzar tal-deko dultzaina-jole eta soinuariak, etabar.

Lehenago, urtarrilaren 29an Baionako teatro munizipalean «Zaz-piribai» jokatu zenean; mugaz hemendikoa zorbait jende sardu ezinik geratu zen, hainbesteko jende multzoa bildu baizen teatro-ra. Oraingoan, egun hartan Baionara biltzeko betarik izan, ez zuten guztientzat jokatua izango da, bereziki. Horrela ba, inguru hauetako jendearentzat Endaia oso toki egokia izango delakoan hautatua izan denez gero ea espektakulua ikusteko intentzioa du-tenek aurretik sarrera eskuratzeko alegiña egiten duten.

Endaia-ko emandali honekin, aldez aurretik erabakia zegoen zikloa hesten da. Horrek ez du esan nahi aurrerago ere beste zorbait herritan «Zazpiribai» agertua izango ez denik; hala ere, ekainaren hasieran, Baionan, ikastoletaz arduratzen den «Ikas» era-kundeak prestatuko duen beste emandali batekin, programazio-aren zatirik garrantzitsuen osaturik geratuko da.

Horrela ba, garaie egokia dela uste dugu euskal kanta eta soinu zahar eta berriak maite dituztenak Endaia aldean biltzeko.

G. L.